



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko ekainaren 7a

63 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, etxebizitzaren arloko alokairua eta bioklimatismoa sustatzeko ekintzei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tutera-ko eta Lizarrako ospitaleetan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioiko eraikinek errotulu elebidunak izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraz ditzan. Erretiratutako mozioa (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, Palestinako egoerari buruzkoa. Osoko Bilkurak berretsia (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 29. artikuluko 2. idatz-zatiko azken lerroaldea aldatzen da Konstituzioari egokitzeko. Merkatari-tza Erregistroan inskribatu behar diren ordez aski izanen da erregistro horrek ikus-entzunezkoen komunikabideen titulartasunaren erregistroari aurretik jakinarazi ez zaizkion sozietate-eragiketak jakinaraztea.

Halaber, Foru Legearen testuaren aldaketa xehe bat ere sartzeko da, argigarri eta praktikoa. Horrela xedatzen da ikus-entzunezkoen kontseiluko langileak Nafarroako administrazio publikoetako langileei buruzko legeen menpe egonen direla, beharrezkoak ez diren gainerako aipua kenduta.

1. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako ikus-entzunezkoen kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 29. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Honelaxe utziko da:

“2. Sozietate titularren eskrituraren edo estatutuen edozein aldaketa jakinarazi beharko zaio erregistroari, eta halaber administrazio organoen osara ere. Inguruabar horiek Merkatari-tza Erregistroak ikus-entzunezko komunikabideen titulartasunaren erregistroari jakinarazi beharko dizkio, sozietate titularrek lehenago jakinarazi ez badizkiote.”

2. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako ikus-entzunezkoen kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 32. artikuluko osoa aldatzen da. Honelaxe utziko da:

“32. artikulua. Kontseiluko langileak.

Nafarroako ikus-entzunezkoen kontseiluko langileak merezimendu eta gaitasunaren printzipioei jarraituz hautatuko dira eta Nafarroako Administrazio Publikoetako langileei buruzko legeen menpe egonen dira.”

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta

2002ko otsailaren 19ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko otsailaren 19ko 12. Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, etxebizitzaren arloko alokairua eta bioklimatismoa sustatzeko ekintzei buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeek aurkeztutako etxebizitzaren arloko alokairua eta bioklimatismoa sustatzeko ekintzei

buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du:

1. Tuterako eta Lizarrako ospitaleei onkologia zerbitzuak emateko behar diren teknika eta giza baliabideak, baita egitura fisikoak ere, eman diezazkien.

2. Haien konplexutasun teknologikoa dela-eta dagokien ospitaleetan jaso ezin ditzaketan tratamenduak hartzera Iruñera joan-etorrian ibili behar duten gaixoentzako kalitatea eta erosotasuna bermatzea.

3. Tratamendua Iruñeko ospitaleetan jaso behar duten gaixo guztien lekualdatzeak Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidearen osasun garrarioaren baliabideak erabiliz eginen dira beti.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du:

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren laguntzarekin ikerketa biomedikoen zentroa eratzeko beharra azter dezan.

2. Sei hilabeteko epean aurkez dezan osasunaren kalitate, garapen teknologiko eta ikerketa plan bat, lanbide prestakuntzan, ikerketa aplikatuan eta aldizkako kreditatzean behar diren alderdi guztiak hartuko dituena, gure sendagile, erizain, albaitari, farmazialari, biologo, kimikari, fisikari, teknikari eta osasun arloko langile guztiak profesional ezin hobeak izan daitezzen.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan, eraikin berri bat eraiki eta ekipamendua eta giza baliabideak ematea barne, kudeaketa unitate bakar batetik zerbitzu hobea eskaintzeko xedearekin.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinan bizi diren nafarren aldeko neurriak har ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Argentinako herriaren

eta bereziki Argentinan bizi diren nafarren eta nafarren ondorengoen egoera ahal den neurrian arintzeko neurri egokiak aztertu eta planifikatu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan bizi diren argentinarrei eta Argentinako krisialdi ekonomiko eta soziala dela-eta Nafarroara etortzea erabakitzen duten Argentinako herritarrei laguntzeko neurri egokiak aztertu eta planifikatu ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jarri dituen edo erabaki honen eraginez sustatuko dituen neurrien eta ekimenen berri eman dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak, egoera zail honetan, bere elkartasuna adierazten die Argentinako gizarteari eta, bereziki, Argentinako Nafar Zentroei.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioako eraikinek errotulu elebidunak izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraz ditzan

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioako eraikinek errotulu elebidunak izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraz ditzan".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako bileran, aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2002ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Adierazpen instituzionala, Palestinako egoerari buruzkoa

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 30ean egindako bileran, Ele-dunen Batzarrak 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran onetsi zuen adierazpen instituzionala, Palestinako egoerari buruzkoa, berrestea erabaki zuen. Hona testua:

“KONTUAN HARTURIK Israelen eta lurralde okupatueta gertatzen dena, Israelgo populazio eta lurralde okupatueta giza eskubideen krisialdi larrian eta indarkeriazko gorpil zoroan sarturik daudela eta nazioarteko komunitateak ez duela erantzunik eman egoeraren aurrean.

KONTUAN HARTURIK lurralde okupatueta populazio osoak errepresio bortitza jasaten duela, honako hauetan gauzatua: etxeak eraistea; etxeak eta eraikinak okupatu eta arpilatzea; eremu handiak isolatzea; errepideetako kontrolak eta zerbitzu oinarrizkoetan murrizketak dakartzaten bonbardaketak; defentsa indar israeldarrek egindako exekuzio judizioz kanpokoak; anbulantzien kontra eta mediku eta erizainen kontra nahita egindako erasoak, zeinek osasun profesionalen artean hildakoak eta zaurituak eragiten dituzten; zauritu palestinarren lekualdatzeak oztopatzea; populazio handiko eremuetan arma hilgarriak neurrigabeki erabiltzea eta atxiloteta arbitrarioak egitea, populazio palestinarra makurrarazi eta umiliatzeko helburua duen zigor kolektiboa bihurtzen direnak.

KONTUAN HARTURIK zazpi milioi palestinarrak beharturik daudela erbestean bizitzera eta munduan errefuxiatu kopuru handiena duen gizataldea dela.

KONTUAN HARTURIK Israelgo populazioa, uneoro, beldurrez bizi dela populazio zibila helburu duten atentatu suizidak direla-eta.

KONTUAN HARTURIK edozein su-etenek edo bake akordioak, bideragarria izateko, heldu behar duela funtsezko alderdi bati, alegia, gatazka giza eskubideen kontrako etengabeko abusuek elikatzen dutela.

KONTUAN HARTURIK ez dela bidezkoa giza eskubideak baztertuak izatea segurtasunaren ize-nean ezta askatasunarenean ere.

NAFARROAKO PARLAMENTUAK ERABAKI DU:

ESKATZEA Europako Batasunaren lehendakari eta espainiarren nazioarteko begiraleak lehenbailehen igortzea susta dezana, agindu argi, gar-

den eta publiko batekin. Begiraleek gatazka armatuetan nazioarteko zuzenbide humanitarioa betetzen dela eta Israelen eta lurralde okupatueta giza eskubideak errespetatzen direla zaintzeko ardura izanen dute.

ESKATZEA Israelgo Gobernuari bertan behera utzi ditzan giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urratze etengabeak, homizidio ez-zilegiak eta indar hilgarriaren erabilera barne; palestinarren etxe eta ondasunen suntsiketa; hiriak eta herriak “ixtea”; atxiloteta arbitrarioak; tortura eta bestelako tratu anker, ez-gizalegezko edo umiliagarriak; osasun profesionalen lana eta osasun laguntza jasotzea oztopatzea; nazioarteko erakunde humanitarioen, giza eskubideen aldeko erakundeen eta kazetarien sarbidea oztopatzea.

ESKATZEA Israelgo Gobernuari NBERen ebazpen guztiak bete ditzan.

ESKATZEA Israelgo Gobernuari bere armada atzera eraman dezala 1967an erabakitako mugearaino.

ESKATZEA Israelgo Gobernuari Palestinako lurralde okupatueta kolonien asentamenduak galaraz ditzan, baita Nazio Batuen ebazpenak urratuz egindakoak ere erretira ditzan.

ESKATZEA talde armatu palestinarreri zibil israeldarren kontrako erasoak eta palestinarren homizidio ez-zilegiak bertan behera utzi ditzaten.

ESKATZEA Palestinako Aginte Nazionalari zibilen homizidio guztiak gaitzets ditzan.

ESKATZEA alderdi guztiei homizidio ez-zilegi guztien gaineko ikerketa egin dezaten eta horiek gauzatu edo agindu dituztenak –agintari israeldarrek direla, agintari palestinarrak direla edo talde armatuak direla– justiziaren aitzinean agerraraz ditzaten.

ESKATZEA alderdi guztiei berehalako su-etena.

ESKATZEA Europako Batasunari Israelentzako armen salmenta berehala bahi dezana eta arma-teknologiaren inguruko lehentasunezko akordioak eten ditzan Israelgo Armada Palestinako lurralde okupatueta irten arte.

ESKATZEA Europako Batasunari, Israelgo Gobernuari, NBERi eta nazioarteko komunitateari Yasser Arafat Palestinako Herriaren legezko ordezkari gisa, demokratikoki hautatua, ezagutu dezaten.

ESKATZEA Europako Batasunari, Israelgo Gobernuari, NBERi eta nazioarteko komunitateari onar dezatela Palestinaren eskubidea estatu duin eta zuzenbidezkoa izateko.

ESKATZEA Palestinako Aginte Nazionalari, Israelgo Gobernuari, Europako Batasunari, NBERi eta nazioarteko komunitateari zazpi milioi palestinar errefuxiatuen arazoari irtenbidea bila diezaio-tela, Palestinara itzultzeko duten eskubidea onar-tuta eta kalte-ordainak ere aurreikusirik.

Adierazpen honen kopia IGORTZEA, onartzen den moduan, Espainiako Gobernuko lehendaka-

riari, Kanpoko Arazoetako ministroari, Israelgo lehen ministroari eta Palestinako Aginte Naziona-lari.

ESKATZEA NBERi eta nazioarteko komunitate-ari nazioarteko batzorde bat era dezaten Yeningo errefuxiatuen eremuan armada israeldarrak egin-dako sarraskia ikertzeko, gertatutako argitu eta horren erantzuleak Hagako nazioarteko auzite-gian agerrarazteko”.

Iruñean, 2002ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 39,07 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------